XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA, PASAIAKO ADINEKO PERTSONENTZAKO SAN PEDRO EGOITZARAKO, EGOITZA ETA EGUNEKO EGONALDI ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ETA PASAIAKO UDALAREKIN HITZARTUTAKO BERE TUTORETZAPEKO APARTAMENTUETARAKO ZERBITZUAK LIZITAZIO IREKIAREN BIDEZ ETA IRIZPIDE ANITZ BALIOETSIZ.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN, POR EL PROCEDIMIENTO DE LICITACIÓN ABIERTO Y MEDIANTE LA VALORACIÓN DE UNA PLURALIDAD DE CRITERIOS, DE LOS SERVICIOS EN LA RESIDENCIA SAN PEDRO, DE RESIDENCIA Y ESTANCIAS DIURNAS PARA PERSONAS MAYORES DE PASAIA Y SERVICIOS CONVENIADOS CON EL AYUNTAMIENTO DE PASAIA PARA SUS APARTAMENTOS TUTELADOS.

AURKIBIDEA

I. XEDEA

II. ZERBITZUEN HELBURU NAGUSIA

III. ZERBITZU MOTAK ETA PLAZA KOPURUA

- III.1. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA
- III.2. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO EGONALDIA
- III.3. TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

IV. ZERBITZUEN ZEHAZTAPENAK

- IV.1. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA
- IV.2. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO EGONALDIAK

V. EGUN KOPURUA, ORDUTEGIA ETA PLAZA KOPURUA

- V.1. EGOITZA ZENTROA
- V.2. EGUNEKO EGONALDIA

VI. SARBIDEA ZERBITZUETARA

ÍNDICE

I. OBJETO

II. FINALIDAD GENERAL DE LOS SERVICIOS

III. TIPOS DE SERVICIOS

- III.1. CENTRO RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA
- III.2. ESTANCIA DIURNA PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA
- III.3. APARTAMENTOS TUTELADOS

IV. ESPECIFICACIONES DE LOS SERVICIOS

- IV.1. CENTRO RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA
- IV.2. ESTANCIA DIURNA PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA.

V. NÚMERO DE DÍAS, HORARIO DE LOS SERVICIOS Y NUMERO DE PLAZAS

- V.1. CENTRO RESIDENCIAL
- V.2. ESTANCIA DIURNA

VI. ACCESO A LOS SERVICIOS

VII. EGOKITZE EPEA ETA GORABEHERAK

VIII. PLAZEN SAILKAPENA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

IX. LANGILEEN ANTOLAKETA ETA MODULAZIOA

X. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

XI. ZENTROAREN KOKALEKUA ETA EZAUGARRI GRAFIKOAK

XII. INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

XIII. MANTENTZE PLANA

XIV. EUSKARA

XV. INFORMAZIO SISTEMAK

XVI. GAIXOTASUN KUTSAKORRAK

XVII. PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK TESTEATZEA

XVIII. ERABILTZAILEEN HISTORIA KLINIKOAREN ERABILERA PARTEKATUARI BURUZKO HITZARMENETIK ERATORRITAKO KONPROMISOAK

VII. PERÍODO DE ADAPTACIÓN E INCIDENCIAS

VIII. CLASIFICACIÓN DE PLAZAS Y RÉGIMEN ECONÓMICO

IX. ORGANIZACIÓN DEL PERSONAL Y MODULACIÓN

X. FORMACIÓN DEL PERSONAL

XI. UBICACIÓN Y CARACTERÍSTICAS GRÁFICAS DEL CENTRO

XII. INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO

XIII. PLAN DE MANTENIMIENTO

XIV. EUSKERA

XV. SISTEMAS DE INFORMACIÓN

XVI. ENFERMEDADES CONTAGIOSAS

XVII. TESTEO DE PRODUCTOS O SERVICIOS

XVIII. COMPROMISOS DERIVADOS DEL CONVENIO PARA LA UTILIZACIÓN COMPARTIDA DE LA HISTORIA CLÍNICA DE LAS PERSONAS USUARIAS

I. ERANSKINA LANGILEEN ZERRENDA XEHATUA

II. ERANSKINA ZERBITZUAREN ASTEKO PLANGINTZA

III. ERANSKINA EGOITZAKO ZERBITZUAREN ZEHAZTASUNAK

IV. ERANSKINA EGUNEKO EGONALDI ZERBITZUAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN PROGRAMAZIOA

ANEXO I. DETALLE DE PLANTILLA

ANEXO II. PLANIFICACIÓN SEMANAL DEL SERVICIO

ANEXO III. ESPECIFICACIONES DEL SERVICIO DEL CENTRO RESIDENCIAL

ANEXO IV. PROGRAMA DE SERVICIOS A PRESTAR EN EL SERVICIO DE ESTANCIA DIURNA

V. ERANSKINA LANGILE PROPIOAK

ANEXO V. PERSONAL PROPIO

I.- XEDEA

Baldintza agiri honen xedea da Pasaiako adineko pertsonentzako egoitza eta eguneko egonaldian (aurrerantzean, “Egoitza”) egoitza zerbitzua eta Pasaiako Udalarekin hitzartutako bere tutoretzapeko apartamentuetarako zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea.

II.- ZERBITZUEN HELBURU NAGUSIA

Kontratu honen barne dauden zerbitzu guztien helburu nagusia da pertsona erabiltzaileei osoko arreta ematea, betiere bakoitzaren banakako premiak kontuan hartuta. Arreta horren oinarri izango dira partaidetza, aukeratzeko gaitasuna eta ingurunea kontrolatzea, eguneroko ekintzak gaitasun kognitibo, funtzional eta psikosozialak garatzeko tresna gisa erabiliz, era horretan, instituzionalizazioak sor ditzakeen mendekotasun eragin posibleak ekiditeko. Ezinbestekoa da erabiltzaileen behar guztiei modu profesionalean erantzun eta beren eskubideak bermatzea. Hori lortzeko, KABIAren politiken muina dira kalitatezko zaintza eta pertsonengan oinarritutako arreta, eta horiek ezin dira ulertu hizkuntza berdintasuna kontuan izan gabe. Erabiltzaile askorentzat oinarri-oinarrizkoa da behar duten asistentzia beren lehen hizkuntzan jasotzea, askoren kasuan, euskaraz.

Zerbitzu guztiak emateko orduan, honako printzipio orokor hauek errespetatuko dira: normalizazioa, autonomia, partaidetza, integrazioa, arreta pertsonalizatua, globaltasuna eta profesionalizazioa.

Jarduketak hauei daude zuzenduta:

a) Pertsona erabiltzaileei

- Autonomia pertsonaleko eta harremanetarako potentzialtasunak garatu eta mantenduko dira, esku-

I.- OBJETO

El presente pliego tiene por objeto fijar las condiciones técnicas que han de regir en el concurso para la contratación del servicio de residencia y estancia diurna en el centro residencial para personas mayores de Pasaia (en adelante, la “Residencia”) y los servicios conveniados con el Ayuntamiento de Pasaia para sus apartamentos tutelados.

II.- FINALIDAD GENERAL DE LOS SERVICIOS

El objetivo general de todos los servicios incluidos en el presente contrato es prestar una atención integral a las personas usuarias respondiendo a sus necesidades individuales. Esta atención estará basada en la participación, la capacidad de elección y control del entorno, utilizando las actividades de la vida diaria como motor del desarrollo de sus capacidades cognitivas, funcionales y psicosociales, para evitar los posibles efectos de dependencia que puede generar la institucionalización. Es básico atender todas sus necesidades de forma adecuada y profesional, y todo ello por supuesto, garantizando sus derechos. En ese sentido, el cuidado de calidad y la atención centrada en las personas son cuestiones que se sitúan en el centro de las políticas de KABIA, políticas que se desarrollan teniendo en cuenta la igualdad lingüística. Para muchas personas usuarias es fundamental recibir la asistencia que necesitan en su primera lengua, en muchos casos, en euskara.

La prestación de todos los servicios estará basada en los siguientes principios generales: normalización, autonomía, participación, integración, atención personalizada, globalidad y profesionalización.

Las actuaciones estarán dirigidas a:

a) Las personas usuarias

- Se desarrollarán y mantendrán sus potencialidades de autonomía personal y capacidad de relación, por medio de

hartze programen bidez eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu zein garatzeko aukera ematen dieten inguruneak sortuz, betiere horretarako behar duten laguntza eskainiz eta behar den kasuetan laguntza emanez

- Arreta jasotzen duten pertsonei premiak dituzten esparru guztietan laguntza eskaini eta emango zaie, besteak beste, zaintzan, arretan, segurtasunean eta abar.

- Arreta jasotzen duten pertsonek izan dezaketen narriadura fisiko, psikiko edota sozialaren aurrean prebentzioa landuko da, zentroko eta komunitateko jardueretan parte har dezaten sustatuz.

programas de intervención y creación de entornos, que les proporcionen oportunidades de desarrollo y participación en la toma de decisiones, ofreciendo el apoyo necesario para su ejecución y prestando ayuda en caso necesario.

- Se ofrecerá y dará soporte en todos aquellos aspectos de cuidado, atención, seguridad, etc., que precise la persona atendida.

- Se prevendrá el posible deterioro físico, psíquico y/o social de las personas atendidas, propiciando su participación en las actividades del centro y de la comunidad.

b) Erabiltzaileen familiak

- Familiei arreta emateko programak garatuko dira, horien partaidetza erraztuz eta arreta jasotzen duen pertsonarekin harremana sustatuz.

- Laguntza emozionala eta instrumentala jarriko zaie eskuragarri, baita informazioa ere, era horretan, arreta jasotzen duen pertsonarekin modu egokiagoan tratatzeko.

b) Las familias de las personas usuarias

- Se desarrollarán programas de atención a las familias, facilitando su participación y fomentando la relación con la persona atendida.

- Se pondrá a su disposición el apoyo emocional, instrumental, y de información que les permita relacionarse, de la forma más adecuada, con la persona atendida.

c) Komunitatea:

- Zentro bakoitza, baita bertako profesionalak eta zerbitzuak ere, erreferentzia ardatz izango dira ingurune komunitarioan, hain zuzen ere mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako. Horretarako, komunitateari irekita dauden jarduerak sustatuko dira.

c) La comunidad:

- Cada centro, sus profesionales y servicios serán un eje de referencia para el entorno comunitario en lo que se refiere a la atención a las personas en situación de dependencia, para lo que se fomentaran actividades abiertas a la comunidad.

Helburu horiek betetze aldera, zentroa

Para el cumplimiento de estos objetivos, el

zerbitzuen arabera antolatuta dago eta zerbitzu bakoitza modulatu beharko da, taldeek modu independentean funtzionatu ahal izan dezaten, eta denboran zehar etengabea den arreta eskaintzeko eta arreta hori pertsona bakoitzaren behar moten arabera egokia izan dadin bermatuz.

centro está organizado por servicios y se deberá modular cada servicio de forma que los equipos puedan funcionar de forma independiente y se garantice una atención continua en el tiempo y adecuada a los tipos de necesidades de cada persona.

Horretaz gain, partaidetza-batzordeak egon beharko dute, arreta jasotzen duten pertsonengana eta horien familiengana modu egokiagoan orientatzeko, langileen partaidetza sustatzeko eta komunitatearekin konexioa areagotzeko. Batzorde hauetan landutako gaiak akta baten jasoko dira eta KABIAk aktak horiek eskatu ahalko ditu.

Además, deberán existir comisiones de participación para orientarse de forma más adecuada hacia las personas atendidas y sus familias, fomentar la participación de las personas trabajadoras y aumentar la conexión con la comunidad. Los temas tratados en estas comisiones se recogerán en un acta y KABIA podrá solicitar dichas actas.

Gainera, zentroa sustapen eta garapen pertsonalerako eremua izan behar da, moduluen artean eta haren ingurune sozialarekin harremanetarako prozesuak sortu behar ditu eta eragin positiboa izan behar du gizarteak horrelako arreta bereziak behar dituzten pertsonei buruz duen pertzepzioan.

Además, el centro deberá ser un espacio de promoción y desarrollo personal y social de las personas que lo utilizan, que genere procesos de interrelación entre los distintos módulos y su entorno social e influya positivamente en la percepción que la sociedad tiene de las personas que precisan este tipo de atenciones especiales.

III.- ZERBITZU MOTAK ETA PLAZA KOPURUA

III.- TIPOS DE SERVICIOS

Zehazki, eskainiko diren zerbitzuak jarraian aipatzen direnak izango dira:

En concreto los servicios que se prestarán serán los siguientes:

III.1.- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA

III.1.- CENTRO RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA

Definizioa:

Definición:

Adinekoentzako egoitza zentroak ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra edo, hala badagokio, aldi baterakoa izateko zentroak dira, mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dauden 65 urtetik gorako adinekoei zuzenduak, bertan arreta

Los centros residenciales para personas mayores son centros destinados a servir de vivienda habitual o permanente, y en su caso temporal, a personas mayores de 65 años en situación de dependencia o, en su caso, de riesgo de dependencia, a las que se presta una atención

integrala eta etengabea emanez.

Intentsitate handiko zentroak dira, eta bertan hau bermatzen da:

a) zaintzaileen etengabeko presentzia (egunean 24 orduz);

b) mediku eta erizaintza zerbitzua ematea; eta

c) ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala lortzera zuzendurik dagoen osoko arreta emateko profil egokiko profesionalez osatutako diziplina anitzeko lantalde baten laguntza.

Helburuak:

a) Pertsona erabiltzaileei eguneroko jarduerak egiteko beharrezko laguntza eta zaintzak ematea, betiere beren autonomia pertsonala mantentzeko ahalegina eginez, eta ahal den heinean, pertsona horien garapena sustatuz, era horretan, okerragotzea saihesteko.

b) Pertsona erabiltzaileek, beharrezko laguntzarekin, komunitatearekin hartu-emanak mantentzeko eta bertan parte hartzeko gaitasuna mantentzea edo garatzea.

c) Erabiltzaileek beren familiarekin, beste erabiltzaileekin edo egoitzarekin zerikusirik ez duten pertsonekin harremanak mantentzea eta zabaltzea, ahal den heinean behintzat.

d) Beren segurtasun sentimendua sustatzea.

Betekizunak eta zer kolektibori zuzentzen zaion:

Gizarte Politiketako Departamentuko Balioespen eta Orientazio Zerbitzuko

integral y continua.

Son centros de alta intensidad, que garantizan:

a) la presencia permanente (24 horas al día) de personal cuidador;

b) la prestación de un servicio médico y de enfermería;

c) el apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para la prestación de una atención integral orientada al bienestar físico, psicológico y social.

Objetivos:

a) Garantizar a las personas usuarias los cuidados y la asistencia personal necesaria para realizar las actividades de la vida diaria, tratando de mantener su autonomía personal y, en lo posible, fomentar el desarrollo y evitar el deterioro de la misma.

b) Que las personas usuarias mantengan o desarrollen, con el apoyo necesario, actividades orientadas a mantener sus relaciones con el entorno comunitario y a participar en el mismo.

c) Que las personas usuarias mantengan y amplíen las relaciones con la familia y con otras personas usuarias o ajenas al medio residencial, y participen, en lo posible, en la vida del centro.

d) Favorecer su sentimiento de seguridad.

Requisitos y colectivo al que se dirige:

Los servicios Técnicos de Valoración y Orientación del Departamento de Políticas

teknikariek zehaztuko dute zein zerbitzu den egokiena pertsona bakoitzaren premiei erantzuteko.

Sociales determinarán la idoneidad de cada servicio para la atención a las necesidades que presenten cada una de las personas.

III.2.- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO EGONALDIAK

Definizioa:

Eguneko egonaldia da egoitza-zentroetan gaurik igaro gabe egiten den egonaldia; hirurogeita bost urtekoentzako edo gehiagokoentzako arreta, eta hala badagokio, mendekotasun-arriskua edo bizimodu autonomoa izateko mendekotasunen bat duten pertsonen arreta du helburu, eta emandako zerbitzuak eta instalzioak bideratuak daude familia- eta gizarte-ingurunean irauteko aukera ematera, eurekin bizi diren familiei laguntza emanda eta mendekotasunaren ondorioak arinduta.

Intentsitate ertain eta handiko zerbitzuak dira, eta zera bermatzen dute:

a) Zaintzaileen etengabeko presentzia, zerbitzua ematen den ordutegian.

b) Mediku eta erizaintza zerbitzua ematea, beharrezkoa bada.

c) Ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala lortzera zuzendurik dagoen osoko arreta emateko perfil egokiko profesionalez osatutako diziplina anitzeko lantalde baten laguntza.

Horrelako zerbitzuek malgutasun irizpideak aplikatzen dituzte funtzionamenduan, era horretan, pertsona erabiltzaileen premietara eta lehentasunetara egokitzeko.

Helburuak:

III.2.- ESTANCIAS DIURNAS PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA

Definición:

Se entiende por estancias diurnas aquellas que se produzcan en centros residenciales, sin incluir la pernocta, y tengan por objeto la atención a personas mayores con edad igual o superior a sesenta y cinco años y en su caso, en riesgo de dependencia o afectadas de algún tipo de dependencia para el mantenimiento de una vida autónoma, mediante el suministro de servicios e instalaciones encaminados a posibilitar el mantenimiento de su permanencia en su entorno familiar y social, ayudando a las familias con las que conviven y paliando así las consecuencias de su dependencia.

Son un servicio de media y alta intensidad, que garantizan:

a) La presencia permanente del personal cuidador durante las horas de servicio.

b) La prestación de un servicio médico y de enfermería, en caso de ser necesario.

c) El apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para la prestación integral orientada al bienestar físico, psicológico y social.

En su funcionamiento aplican criterios de flexibilidad que permitan una utilización del servicio adaptado a las necesidades y preferencias de la persona usuaria.

Objetivos:

a) Laguntza behar duten adinekoen eta senitartekoen bizi-baldintzak egokiak izan daitezen laguntzea, eta alderdi biei ahalik eta autonomia eta bizi-kalitate handiena ematea.

b) Laguntza behar duten adineko pertsonak bere ohiko ingurunean segi dezala laguntzea.

c) Erabiltzaileen beharrei erantzutea, ahalik eta autonomia handiena lortzeko programa garatuz.

d) Erabiltzaileen senideei laguntza eta aholkuak ematea, adinekoak beren ingurunean bizitzen jarrai dezaten, eta zainketa lanak egiteko behar den jokabideari buruzko informazioa ematea.

a) Favorecer la existencia de condiciones adecuadas de vida entre las personas mayores dependientes y sus familiares, procurando el mayor nivel de autonomía y calidad de vida para ambas partes.

b) Posibilitar la permanencia de la persona mayor dependiente en su entorno habitual.

d) Atender a las necesidades de las personas usuarias mediante el desarrollo de los programas adecuados para conseguir el máximo nivel de autonomía posible.

e) Ofrecer a las familias de las personas usuarias el debido apoyo y asesoramiento para que puedan seguir manteniéndolas en su medio e informarles de las pautas necesarias para la realización de labores de cuidado.

Betekizunak eta zer kolektibori zuzentzen zaion:

Gizarte Politikako Departamentuko Balioespen eta Orientazio Zerbitzuko teknikariek zehaztuko dute zein zerbitzu den egokiena pertsona bakoitzaren premiei erantzuteko.

Requisitos y colectivo al que se dirige:

Los servicios Técnicos de Valoración y Orientación del Departamento de Políticas Sociales determinaran la idoneidad de cada servicio para la atención a las necesidades que presenten cada una de las personas.

III.3.- TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

Egoitzako eta eguneko egonaldietako zerbitzuko erabiltzaileei emandako zerbitzuei erantsi behar zaizkie Pasaiako Udalak Jokin Amondarain eraikinean (San Pedro kalea 7-9) dituen etxebizitzen erabiltzaileei eskainitakoak. Zerbitzu hauek Kabiari emanak daude bi aldeek 2023ko abenduaren 31 arte sinatuta duten hitzarmenenaren bidez. Data horren ondoren, hitzarmen hori beste lau urtez luzatu ahal izango da.

III.3.- APARTAMENTOS TUTELADOS

Además de los servicios prestados a los usuarios/as de la residencia y las estancias diurnas hay que añadir aquellos dirigidos a los usuarios/as de las viviendas del Ayuntamiento de Pasaia situados en el edificio Jokin Amondarain (Calle San Pedro 7-9). Estos servicios están encomendados a Kabia a través del convenio que ambas partes tienen firmado hasta 31 de diciembre de 2023. Tras esa fecha dicho convenio podrá ser prorrogado por un periodo de hasta cuatro años.

Aipatutako zerbitzuak hauek dira:

- Eraikinaren eremu amankomunen garbiketa: Ataria, bisita-gela, eskailera eta garbitegi-guneak, bainugela erkideak, biltegia eta patioak. Garbiketa astean behin egiten da, eta 2,5 ordu ematen da horretan.

- Erabiltzaileen arropa zuriaren garbiketa astean behin: Ohe-joko osoa eta eskuoihalak. LanaK arropa hartu eta egoitzako garbitegira erama, han garbitu eta lisatzean datza. Astean ordubete ematen da horretan.

- Bazkari eta afari zerbitzua. Leku mugak direla eta, gehienez 3 plaza.

Estos servicios son:

- Limpieza de las zonas comunes del edificio: Portal, sala de visitas, escalera y las zonas de lavandería, baños comunes, almacén, ventanas de la zona común y patios. La limpieza se realiza un día a la semana y supone un tiempo de 2,5 horas.

- Limpieza de la ropa blanca de los usuarios 1 vez por semana: Juego completo de cama y toallas. La tarea consiste en recoger la ropa y llevarla a la lavandería de la residencia para su lavado y planchado. Supone una hora a la semana.

- Servicio de comida y cena: Limitado a 3 plazas como máximo por limitaciones de espacio.

IV.- ZERBITZUEN ZEHAZTAPENAK

Kontratu honi dagokionez, (prezio publikoan zehaztuta egon ala ez) kontratistak bere osotasunean eman beharko ditu 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, xedatzen dituen edukiak.

KABIAk kudeatutako egoitza guztietan ematen diren zerbitzuen kalitatea berdintze aldera, eman beharreko zerbitzuak III eta IV. eranskinetan zehaztutakoaren arabera eman beharko ditu lizitatzaileak. Halaber, enpresak aplikatu beharko du KABIAk bere egoitza guztietarako onar lezakeen barne erregimen arautegia.

IV.- ESPECIFICACIONES DE LOS SERVICIOS

A efectos de la prestación del presente contrato, los contenidos a prestar por la contratista en su integralidad (estén contemplados o no en el precio público) son los establecidos por el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Con el fin de homogeneizar la calidad de los servicios que se prestan en todas las residencias gestionadas por KABIA, la licitadora deberá prestar los servicios a prestar conforme a lo especificado en los anexos III y IV. Asimismo, la empresa deberá aplicar la normativa de régimen interior que pudiera aprobar KABIA para todas sus residencias.

IV.1.- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA

Urriaren 6ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuko I eranskineko 2.4.1 fitxak xedatzen dituen edukiez gain, egoitza-zerbitzuan eman beharreko zerbitzuak mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zerbitzuak ituntzeko baldintzak zehazten dituen maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuan (aurrerantzean "Katalogoa"), 38/2007 Foru Dekretua aldatzen duen 8/2021 Foru Dekretuan eta uztailaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretuak definitutako guztiak dira, edo berau ordezkatzen edo osatzen duen araudia.

Zehaztutako zerbitzuek une oro bete beharko dituzte jardunbide egokiak, hain zuzen ere funtsezko prozesuetan eta maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuko IV. Eranskinean aipatzen diren jarduera esparruetan eta 126/2019 Dekretuko III. kapituluan zehaztutakoak.

IV.1.- CENTRO RESIDENCIAL PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA

Además de los contenidos establecidos en la ficha 2.4.1 del Anexo I Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los servicios a prestar en el servicio de residencia son todos los definidos por Decreto Foral 38/2007 de 22 de mayo, por el que se determinan los requisitos para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes (en adelante "Catálogo"),, el Decreto Foral 8/2021 por el que se modifica el Decreto Foral 38/2007 y en el Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores de la Comunidad Autónoma del País Vasco o la normativa que la sustituya o complemente.

Los servicios definidos deberán cumplir, en todo momento, las especificaciones o buenas prácticas establecidas para los procesos clave y las áreas de actuación que se enumeran en el Anexo IV del citado Decreto Foral 38/2007, de 22 de mayo y los establecidos en el Capítulo III del Decreto 126/2019.

IV.2.- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO EGONALDIA

Urriaren 6ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuko I. Eranskineko 2.2.1 fitxak xedatzen dituen edukiez gain, IV. Eranskinean zehaztutako zerbitzu zerrendan ageri diren zerbitzuak eman beharko dira.

Definitutako zerbitzuek une oro bete beharko dituzte mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Foru

IV.2.- ESTANCIA DIURNA PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACION DE DEPENDENCIA

Además de los contenidos establecidos en la ficha 2.2.1 del Anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los servicios a prestar son los que se definen en la relación de servicios definida en el Anexo IV.

Los servicios definidos deberán cumplir, en todo momento, las especificaciones o buenas prácticas establecidas para los procesos clave y las áreas de actuación que se enumeran en el

Dekretuan zerrendatzen diren funtsezko prozesuetarako eta jardun-arloetarako ezarritako zehaztapenak edo jardunbide egokiak.

Era berean, 202/2000 Foru Dekretuak I. Eranskineko 8. Puntuan jasotzen dituen arreta zuzeneko langileen eta erabiltzaileen arteko gutxieneko tasa edo ratioak bermatuko dira.

Decreto Foral 202/2000, de 17 de octubre, sobre los centros de día para personas mayores dependientes.

Asimismo, se garantizarán las tasas o ratios mínimos entre el personal de atención directa y las personas usuarias recogidos en el punto 8 del Anexo I del Decreto Foral 202/2000.

V.- PLAZA KOPURUA, EGUN KOPURUA ETA ORDUTEGIAK

Edozein zentrotan, zerbitzutan edo modalitatetan, KABIAk zerbitzu egun eta ordu kopurua aldatu ahal izango du, premien arabera beharrezkoa bada. Kasu horretan, benetan emandako zerbitzuen arabera, dagokion kontraprestazioa egingo du.

V.- NÚMERO DE PLAZAS, NÚMERO DE DÍAS Y HORARIOS

En cualquiera de los centros, servicios o modalidades, KABIA podrá variar el número de días y de horas diarias de servicio, si las necesidades detectadas así lo aconsejan, con la consiguiente contraprestación que se corresponda con la efectividad de los servicios prestados.

V.1.- EGOITZA ZENTROA

Pasaiako egoitzak 39 plaza ditu.

Aldi berean, egoitzak banakako gela bat du heriotzaren azken faseko edo gerta daitezkeen beste egoera berezi batzuetako zainketetarako. Plaza sailkapena eta erregimen ekonomikoari dagokionez, plaza hori ez da bete gabeko plazatzat hartuko, eta, beraz, ez du inolako kobru eskubiderik sortuko. (Ikus agiri hauetako VIII. atala).

Ondorengo taulan jasotzen dira, erreferentzia gisa, 2023ko maiatzaren 12an dependentzia gradu bakoitzari dagozkion plazak:

V.1.- CENTRO RESIDENCIAL

La residencia de Pasaia dispone de 39 plazas residenciales.

Al mismo tiempo la residencia dispone de una habitación individual para los cuidados de la última fase del fallecimiento u otras situaciones especiales que puedan darse. A efectos de clasificación de plaza y régimen económico, esta plaza no tendrá la consideración de plaza no ocupada por lo tanto no generará derecho alguno de cobro. (Véase apartado VIII de estos pliegos).

En la siguiente tabla se recoge, a modo de referencia, el número de plazas correspondiente a cada grado de dependencia a fecha 12 de mayo de 2023:

Dependentzia gradua / ***Grado de dependencia***	**Plaza kopurua (2023/05/12) /** ***Nº plazas***

	(12/05/2023)
GUZTIRA/*TOTAL:*	**39**
EGOITZA / *RESIDENCIA*	
0 gradua / *Grado 0*	1
I gradua / *Grado I*	5
II gradua / *Grado II*	18
III gradua / Grado III	13
Plaza hutsa /*Plaza vacía*	2
Guztira / *Total*	**39**

Kopuru hauek aldaketak jasan ditzakete erabiltzaileen baja eta alten arabera.

Egun kopurua:

Urteko egun natural kopuruaren araberakoa izango da zerbitzua emateko egun kopurua; hots 365 edo 366.

Ordutegia:

Zerbitzua eguneko 24 ordutan emango da.

Estas cifras pueden variar en función de las altas y bajas de las personas usuarias.

Número de días:

El número de días efectivos del servicio será coincidente con el número de días naturales del año (365 o 366).

Horario:

El servicio se prestará las 24 horas del día.

V.2.- EGUNEKO EGONALDIA

Pasaiako eguneko egonaldi zerbitzuak 11 plaza ditu laneguneta n.

Ondorengo taulan jasotzen dira, erreferentzia gisa, 2023ko maiatzaren 12an dependentzia gradu bakoitzari dagozkion plazak:

V.2.- ESTANCIA DIURNA

El servicio de estancia diurna de Pasaia dispone de 11 plazas los días laborales.

En la siguiente tabla se recoge, a modo de referencia, el número de plazas correspondientes a cada grado de dependencia a 12 de mayo de 2023:

Dependentzia gradua / *Grado de dependencia*	**Laneguneta ko plaza kopurua (2023/05/12)** **Nª plazas días laborales (12/05/2023)**
GUZTIRA/*TOTAL:*	**11**
0 gradua / *Grado 0*	0
I gradua / *Grado I*	4
II gradua / *Grado II*	5
III gradua / Grado III	2

Plaza hutsa /*Plaza vacía*	0
Guztira / *Total*	11

Kopuru hauek aldaketak jasan ditzakete erabiltzaileen baja eta alten arabera.

Egun-kopurua:

Astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, urteko hilabete guztietan. Beraz, zerbitzuaren egun kopurua lan egutegi ofizialean zehaztutakoa izango da.

Ordutegia:

Arreta zerbitzuak, oro har, eguneko 8 orduko iraupena izan behar du gutxienez, eta 08:00etatik 20:00 bitartean gauzatuko da.

Zentrora sartzeko eta bertatik irteteko ordutegiak garraio-zerbitzuaren arabera zehaztuko dira.

Zerbitzuaren berrantolaketa

Zentroaren berrantolaketa dela eta, kontratu honek irauten duen bitartean eguneko egonaldien zerbitzuari lotutako plazak pixkanaka desagertzea aurreikusten da.

Estas cifras pueden variar en función de las altas y bajas de las personas usuarias.

Número de días:

Incluye los días de lunes a viernes, salvo festivos, durante todos los meses del año. Por tanto, el número de días efectivos de servicio estará sujeto a lo establecido en el calendario laboral oficial.

Horario:

El número de horas de atención con carácter general tendrá una duración mínima de 8 horas diarias, prestándose entre las 8 y las 20 horas.

Los horarios de entrada y salida del centro se determinarán en función del servicio de transporte.

Reorganización del servicio

Debido a la reorganización del centro se prevé que durante la duración de este contrato paulatinamente desaparezcan las plazas vinculadas al servicio de estancias diurnas.

VI.- SARBIDEA ZERBITZUETARA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak zehaztuko du pertsona erabiltzaileak noiz hasiko diren egoitzetako zerbitzuak jasotzen, betiere abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzekoak xedatutakoa betez, eta lege horrek xedatu gabeko egoeretan, pertsona horiei laguntza emateko oinarrizko baldintzak ezartzekoak, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituen foru dekretuak eta

VI.- ACCESO A LOS SERVICIOS

El ingreso de las personas usuarias será establecido por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme a lo establecido en la Ley 39/2006 de 14 de diciembre de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de Dependencia, y la normativa vigente por la que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas en situación de dependencia en Gipuzkoa en lo que no contravenga aquélla y las Ordenes Forales, resoluciones e Instrucciones que se dicten en su desarrollo y ejecución.

hori garatu zein egikaritzeko foru agindu, ebazpen eta aginduetan xedatutakoa beteko da, legeak xedatutakoa eragotzi gabe.

Plaza bat hutsik geratzen den momentuan, itxaron zerrendan dagoen pertsonetako bati esleituko zaio plaza hori. Esleipen hori egiteko zerbitzuaren premia eta hutsik geratu den plazaren ezaugarriak hartuko dira kontuan, indarrean dagoen prozedura betez, eta Gizarte Politiketako Departamentuak izendatutako pertsonei arreta ematen hastea onartuko du kontratuaren esleipendunak.

En el momento en que se produzca una vacante se procederá a la asignación de la misma a una persona de las que se encuentran en lista de espera, siendo la necesidad del servicio y las características de la plaza vacante las que determinarán la autorización del ingreso, comprometiéndose la adjudicataria a proceder a la admisión de las personas usuarias designadas, de acuerdo con el procedimiento vigente.

Pertsona erabiltzaileen egoera berrikusi ahal izango da, eta aipatutako zerbitzuak jasotzeko eskubidea galdu ahal izango du erabiltzaileak, bere baldintzak aldatu badira.

La condición de persona usuaria podrá ser revisada, pudiendo disponerse la pérdida de dicha condición por haberse modificado las condiciones iniciales del mismo.

VII.- EGOKITZAPEN EPEA ETA GORABEHERAK

VII.- PERÍODO DE ADAPTACIÓN E INCIDENCIAS

a) Egokitzapen aldia

Erabiltzailea zentroan sartu eta hurrengo hiru hilabeteak dira egokitzapen aldia. Bakoitza zentroaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitu behar da, eta baita gutxieneko bizikidetza ohitura batzuetara ere, era horretan, pertsona erabiltzaile guztien arreta egokia eta ongizatea bermatzeko.

a) Período de adaptación

El periodo de adaptación comprende los tres primeros meses posteriores al ingreso, y atañe a la adaptación personal a las características y funcionamiento del centro, así como a los hábitos de convivencia mínimos que garanticen una correcta atención y bienestar para todas las personas usuarias.

Egokitzapen aldian zehar, zentroko zuzendaritzak egonaldian sortzen diren zailtasunen eta unean agertzen diren oztopoen berri emango dio erabiltzaileari, edo horrek eskuordetutako erreferentziazko pertsonari, eta guztien artean egokitzapena errazteko irtenbideak bilatuko dira.

Durante el periodo de adaptación la dirección del centro comentará en todo momento con la persona usuaria, o, por delegación de ésta con la persona de referencia, las dificultades que surjan en la evolución de la estancia y las dificultades que vayan surgiendo, buscándose de forma conjunta las soluciones necesarias para lograr una buena adaptación.

Egokitzapen aldia amaitzean, edozein arrazoi dela eta, ez bada egokitzapen aproposik lortu, zentroak txosten bat bidali beharko dio Gizarte Politiketako Departamentuari, bertan horren arrazoiak

Transcurrido este periodo y en el supuesto que, por diversos motivos no se haya logrado una adaptación adecuada, el centro deberá remitir un informe explicando las razones al Departamento de Políticas Sociales.

azalduz.

Txostena aztertu ondoren eta alderdi guztiek esan beharrekoa entzun ondoren, Gizarte Politiketako Departamentuak dagozkion jarraibideak ezarriko ditu kasu bakoitzari erantzun egokia emateko.

El Departamento de Políticas Sociales, una vez analizado el informe y escuchadas las partes establecerá las actuaciones a seguir para una adecuada resolución del caso.

b) Gorabeherak:

b) Incidencias:

Edonola ere, zerbitzuan gorabeherarik badago, hain zuzen ere pertsona erabiltzaileen alta, behin betiko bajak eta behin-behineko bajak, kontratistak horien berri emango dio KABIAri betiere horiek gertatu eta 2 eguneko epean gehienez Extranet (Gizarte Politiketako Departamenduko plataforma) eta Resiplus (KABIAren kudeaketarako informazio-sistema) bidez. Gainera, gorabehera guztiak eguneratuta egon beharko dira Extraneten eta Resiplusen hil bakoitzeko lehen egun baliodunaren goizeko 10ak baino lehen.

En todo caso, la contratista notificará a KABIA las incidencias que se produzcan en el servicio, relativas a las altas, bajas definitivas o temporales de personas usuarias, dentro de los 2 días siguientes a la fecha en que se produzcan a través de Extranet (plataforma del Departamento de Políticas Sociales) y de Resiplus (sistema de información de gestión de KABIA). Además, todas las incidencias deberán estar actualizadas tanto en Extranet como en Resiplus antes de las 10 de la mañana del primer día hábil de cada mes.

Behin-behineko bajatzat joko dira, eta beraz, plazaren erreserbarako eskubidea izango dute pertsona erabiltzailea ospitaleratzea edo antzeko beste egoeraren bat, KABIAk, Gizarte Politiketako Departamentuaren zuzentarauak jarraituz, hala jotzen badu.

Tendrán la consideración de bajas temporales, y por tanto originarán un derecho de reserva de plaza, aquellas bajas que se produzcan como consecuencia del ingreso de la persona usuaria en un centro hospitalario u otras circunstancias de índole similar, así consideradas por KABIA de acuerdo con las directrices del Departamento de Políticas Sociales.

Behin-behineko baja ere izango dira, eta beraz, plaza erreserbatzeko eskubidea sortuko dute, opor epe arruntek, baldin eta urtean 45 egun baino gehiagokoak ez badira.

También tendrán la consideración de bajas temporales, originando igualmente derecho de reserva de plaza, el disfrute de periodos vacacionales ordinarios que no excedan de 45 días anuales.

Edonola ere, erreserba eskubidea duten plazak behin-behineko plaza gisa edo bestelako premia batzuk asetzeko erabili ahal izango dira, betiere KABIAk Gizarte Politiketako Departamentuaren jarraibideak jarraituz zehaztutakoaren arabera. Horrelako egoerarik badago, kontratistak kobratzeko orduan, betetako plazatzat joko dira behin-behineko plaza horiek.

En cualquier caso, las plazas con derecho a reserva podrán ser utilizadas como plazas temporales o para atender otro tipo de necesidades, de acuerdo con lo que establezca KABIA en aplicación de las directrices del Departamento de Políticas Sociales. Producida esta circunstancia, y a efectos del cobro por la contratista, tales plazas tendrán la consideración de ocupadas.

Behin betiko baja izango dira honako arrazoi hauengatik gertatzen direnak: pertsona erabiltzailearen heriotza, erabiltzaileak plazari boluntarioki uko egitea, erabiltzaileak plaza lortzeko bete beharreko baldintzak ez betetzea, eta KABIAk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren jarraibideen arabera, hala jotzen dituen gainerako egoerak.

Tendrán la consideración de bajas definitivas las que se produzcan por las siguientes causas: fallecimiento, renuncia voluntaria, incumplimiento sobrevenido de los requisitos exigidos para el acceso de la persona usuaria, y otras circunstancias consideradas pertinentes por KABIA, de acuerdo con las directrices del Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Zerbitzuaren garapenean eragina izan dezakeen beste edozein gorabehera (esaterako, pertsona erabiltzailearen profila aldatzea, harreman gatazkak, kuotak ez ordaintzea, zailtasunak garraio zerbitzuan...) ere ahal bezain laster jakinarazi beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuari.

Cualquier otro tipo de incidencia que afecte al desarrollo del servicio (tales como cambios de perfil de las personas usuarias, conflictos relacionales, impagos de cuotas, dificultades en el servicio de transporte…) deberá también ser comunicada en el menor plazo de tiempo al Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

VIII.- PLAZEN SAILKAPENA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

VIII.- CLASIFICACIÓN DE PLAZAS Y RÉGIMEN ECONÓMICO

Ondorio ekonomikoetarako, KABIAk honako plaza sailkapen hau aitortzen du:

KABIA reconoce a efectos económicos la siguiente clasificación de plazas:

Betetako plaza: pertsona bati esleitutako plaza, hori zerbitzua jasotzen hasten den momentutik aurrera. Indarrean dagoen prezioaren araberako kobrantza eskubidea sorraraziko du.

Plaza ocupada: plaza asignada a una persona desde el momento en que se produce su incorporación al Servicio. Generará un derecho de cobro equivalente al precio vigente.

Erabiltzaile bat isolatzeko beharra balego, gaixotasun kutsakorrarekin bateragarriak diren sintomak dituelako, adjudikaziodunak isolamendu sanitarioagatiko plusa jasotzeko eskubidea izango du egonaldi-egun bakoitzeko.

En caso de que una persona usuaria tuviera que ser aislada, por padecer sintomatología compatible con alguna enfermedad contagiosa, la adjudicataria tendrá derecho a percibir un plus por aislamiento sanitario, por cada día de estancia.

Sektore oso bat isolatu beharko balitz, langile bat kutsatuta egoteagatik edo beste arrazoiren bat medio, ordea, ez da horrelako eskubiderik egongo.

No obstante, si se hubiera que aislar un sector completo, bien por estar contagiada una persona trabajadora bien por cualquier otra causa, no se tendrá tal derecho.

Bete gabeko plaza: Inori esleitu gabeko plaza. Ez da halakotzat hartuko heriotzaren azken fasea edo gerta daitezkeen beste

